



# USKUÏTZ-GAYAK

GOIZPARKI EDO EBANGELIJA  
ORILA - 20 GAREN EKUA



*Baña gauzak esan dautzubedaz euren aldija etorita  
nik aurretijaz esan edo iragari dautzubedanaz  
gomuta zalezantzat.*

Aldi atan: Josu'k bere ikasarijai esan eutsen: Parakelda, edo *Kontsolatzalia*, edo Gotaskarija, neuk Ateagandik bidalduko dautzubedana, egi-Gogo edo *Espirituba*, Ateagandik datorana, etofiko danian, berak ni egitaz erakutsi edo zinalduko nau; eta zubez be bai egitaz erakutsi edo zinalduko nozube, lenertotik, asi-aldifrik neukim zagozalako.

Gauzak esan dautzubetaz jauspida artu eztagixubentzat.

Batzañtoki-barik egingo zabez; eta zuberatariko inhorbat ilgo daun edonok Jaun-goiakua'ri ariguri edo atsegin egifen dautsola usteteko aldija datof.

Gauzak, baña, egingo dautzubez, eztabelako ezautu ez Atea, ez Nerau.

Baña gauzak esan dautzubedaz euren aldija etorita, nik aurretijaz esan edo iragari dautzubedanaz gomuta zalezantzat.

## EGIXU ZEUK. MARIJA

(eri-abeskizta zerbait orazututa.)

BESKUNA. — ERJAK

Egizu, Miren Ama,  
Otoi geure aldez,  
Erjotzan lorizeko  
Donokija ercz.

ANESLARJAK. — Bikaña

Inoz Ama Neskutzik  
Eztozu ikusiko,  
Alatzez zeu bakara  
Jaungu rentzako.

II

Ama, obendijuen  
Ufgazpena zara,  
Bizkerabjatzeko  
Gatoz egapera.

III

Obereni eta irafren  
Gurbaya daukogu,  
Baña garbi irauteko  
Esku emoguzia.

IV

Guruzpian smetzat  
Arfu gnduzizan;  
Ama lez jalon gaxuz  
Gogoz gabtorijan.

V

Zeure ixen deunak zaindu  
Gaxala bixitzan,  
Lagun zakiguzala  
Erjotzaldijan.  
MAZELAGAN'DAR AYA.

# I AMARIK EZ!

Sofeko beltz-beltzez jautzirik,  
aide ez-egagunari eskutxe emanik,  
aiz' gastexo bat beretik uruti  
beste etxe batera dijoa negarti.

Bere begi urdiak mailko lahoitua,  
estu-estuturikan lariz ezpantxuak,  
zotifizez, itun amarengatik du galdetu  
banan erukariak jamarik ez-du!

Bidufrez begiratuz inguruetara,  
bai-dijoa gaxua... ta ez daki nora;  
begiratzen dio daraman emakumeari  
banan oregon maifasunik ezin-du arki.

Entzun-aren noizik-bein itz leun-samarak  
ez-dira nai lituzken maifari samurak,  
ta amako kutunakin aua da orofitu  
banan erukariak jamarik ez-du!

Atzo zitun gaxuak aita-ama maifariyak,  
beretzat biyen maifasun ta slegin guziyak;  
aure etxetik aterako zuten banto lein  
ayek euren bizia emango ere zuten.

Cauf aitzaki txikitua ziyotzat arturik  
eraz bidaldua da maifia etxetik;  
aurtxo kutun-kutunak oraindik aita du...  
banan erukariak jamarik ez-du!

Maite ta nagusi bere etxian zana,  
dijoa besterenean oitsen izatera;  
amaren magalian ez da geyago exeriko  
bere laztan gozorik ez du ere atuko.

Ta etofizunaren berri ba'leki bezela,  
bat-batian aurtxua bidian gelditu da,  
ta lagunari begiraturik «amatxo» eskatu du,  
banan erukariak jamarik ez-du!

Bere samintasuna geyago gorde-zirikik,  
aurtxena laritu da uegariari emanik;  
erukiz aide-laguna maitez da muntzatzen;  
orduan ta geyago aua da laritzen.

Ez-da ludiyan ezer pozituko dauzik  
bere amatxo laztan kutune besterik;  
ta «amatxo» baño «amatxo» nai du!  
banan erukariak jamarik ez-du!

TENE.

## Australia'tik neure Aberi mañera

EUZKO-DEYA'ren idazle ta irakurriai agur:

Poz ta atsegin andijagaz irakurten dogu EUZKO-DEYA luiki edo lufalde onetan gagozan euzkotariak; zeta zelan ez ikusirik berak dakazan Goizpaka, idazki mamintsuak eta oterki ederak? Beronek alafuten gatu euzkotar' danok.

Bafa eldu da geure eskubetara *Mufasan eta Gofoto* ixena daun idazituba. ¡Au, bai, edera! Berau irakuri-barik ezin leu egon euzkotar' bat bez.

Bafa eldu yaku be *Elenetxu*. Au be gustizko polifo dago. Bertan dirakur (irakurien da) zelakua zan Elenetxu Irelan'dar neskatu zintzu.

Eta, guenez, «Enkel-Abestijak» be artu doguz. Onck be gustizko ederto dagoz, Euzkadi gustiko abestijakaz euri yagoken eresijagaz. ¿Ta nok esango eban euzko-abestijak abestuko ziranik Australia'ko mendi-arte onetan? Euroi, ba, gara ateraten dautsegu batez-be euzko-talde bat batzauzkerro; onetarako egon be bai-dagoz geure artian abots zoli edera dauken mutijak.

Gusti onekafik zor dautseguz eskarak *Euzkeltze-Bazkan* eko mutij azkarai curok aleginduten diralako geure abesti zarak idoroten eta jarfen yagokon tokijan.

•Bafa agurtzen ditut idazki onen bidez *Aberi* asteroko izparingijaren egile gustijak. Guda-irintsija lez datof euzko-gogunak piztuten eta geure arerijuan guda egifen.

Agur, irakurliok; urengo idazkiritae (j. l.).

BALANTZATEGI-LOYOLA'TAR BINGEN.

Ayr'tik, 1917'gko. Otsala-27'gu.